

2017ko
ONDAREAREN
EUROPAKO
JARDUNALDIAK

JORNADAS
EUROPEAS DEL
PATRIMONIO 2017

BIZKAIA

Urria / 2017 /
Octubre

Doako jarduerak · Actividades gratuitas

www.bizkaikoa.bizkaia.eus/jep



Bizkaia
Foru aldundia
diputación foral



PAISAIA BIZIA

La construcción de los paisajes culturales



LEA IBAIKO ESTUARIOA.

Oinezko ibilbide gidatua.

Ibilbide horrek gizakiok Leako haranean utzi dugun aztarna hurbiletik ezagutzeko bidea emango digu. Oletatik ibaiaren bokaleraino, Lekeitio eta Mendexa artean, arroko ekoizpen- eta gizarte-eraldaketaren arrastoak ikusiko ditugu: presak (adibidez, Burdiñolakoa), padurak, hezeguneak, Zubietako jauregi barrokoa, erriberako ontziola tradizionalak, hariztiak, Isuntzako marea-errotak, Arropaingo antzinako portua... hitz batean, mendeetako baliabide naturalen aprobetxamendua erakusten duen paisaia aberatsa.

Hizkuntza: Euskara.
Elkargunea: Oleta (Ugaran auzoa, Amoroto).
Eguna eta ordua: Igandean, hilak 15, 11:00etan.
Antolatzailea: Lea Ibarra Udal Mankomunazgoa.
Informazioa eta erreserbak: 946 844 423.
Lekuak mugatuak dira.

AULESTI

ARBOLEKIN BERBETAN.

Oinezko ibilbide gidatua.

Gure lagun ikusezinekin, zuhaitzeekin, etxekotzeko ibilbidea. Erreken ertzetan, bideen ondoan, etxeen atzealdean... zuhaitzek ere osatzen dute gure paisaia. Egunero pasatzen gara haltzen, elorrien, erramuen, akazien eta beste batzuen ondoan, baina ez dakigu nola bereizi, zein den bakoitzaren habitata, zeintzuk diren haien ezaugarriak ezta zerk egiten dien kalte ere. Lea ibaiko bidean ibilbide bat egitea proposatzen dizuegu, gure ondarearen alderdi hori hobeto ezagutzeko.

Hizkuntza: Euskara.

Elkargunea: Aulestiko plaza.

Eguna eta ordua: Igandean, hilak 1, 10:30ean.

Antolatzailea: Aulestiko Udala eta Lea Ibarra Udal Mankomunazgoa.

Informazioa eta erreserbak: 946 844 423.

Lekuak mugatuak dira.

BASOA, EZOHIKO EKOIZPEN-PAISAIA.

Oinezko ibilbide gidatua.

Ibilbide honetan ekoizpen-jarduerak gure paisaiak eraldatu dituela ikusiko dugu. Basoak Aulestiko industria nagusia izan dira mendeetan. Historian zehar, pagoak eta haritzak sartu ditugu egur-ikatza egiteko, gaztainondoak, sagarrondoak eta beste fruta-arbola batzuk zaindu ditugu neguan elikagaiak edukitzeko, arte-hostoak bildu ditugu azientzarentzat edo, azken 120 urteetan, pinuak landatu eta moztu ditugu papergintza-industriarako. Oiniko artadia bisitatzea egoera hori ezagutzeko aukera ona da.

Oharra: autobus batek Aulestin hartuko gaitu Bengoleako bidetuztera eramateko eta hortik 10:00etan irtengo gara oinez. Nahi duena autoz irits daiteke hara edo Okamika industrialdera.

Hizkuntza: Euskara.

Elkargunea: Aulestiko plaza.

Eguna eta ordua: Igandean, hilak 8, 09:30ean.

Antolatzailea: Aulestiko Udala eta Lea Ibarra Udal Mankomunazgoa.

Informazioa eta erreserbak: 946 844 423.

Lekuak mugatuak dira.

AULESTIKO ERDI AROKO PAISAIA.

Bisitaldi gidatua eta hitzaldia José Angel Fernándezekin.

Jarduera honen bidez, San Juan Burumoztuaren basilizako (Murelaga, Aulesti) arkeologia-lanen emaitzen berri izango dugu eta haren eraikuntza-faseak ezagutuko ditugu. Egungo basiliza eraikuntza sinplea da, baina horko harriek sekretu ugari gordetzen dituzte arkeologia-indusketa txiki batean aurkituak: aurreko tenpluen arrastoak, lotutako nekropoliak barne, eta ustekabe batek edo bestek Aulestiko Erdi Aroko paisaiaren bilakaera erakargarri bat erakutsiko digute.

Hizkuntza: Gaztelania.

Elkargunea: Murelagako (Aulesti) San Juan Burumoztuaren basiliza.

Eguna eta ordua: Igandean, hilak 15, 11:00etatik 12:30era.

Antolatzailea: Ondare Babesa SL.

Informazioa eta erreserbak: 679 140 095 - ondarebabesa@ondarebabesa.com

Lekuak mugatuak dira.

AULESTIKO ZUHAITZAK.

Erakusketa.

Urriaren asteburuetan Aulestiko zuhaitz esanguratsueni buruzko erakusketa bat egingo dugu: bakanenak, handienak, arraroenak, zaharrenak... erakutsiko ditugu, denak baitaude sinbolismoz beteta. Horietako batzuek historia luzea gordetzen dute, beste batzuk ez dira ia ezagutzen, baina denek osatzen dute gure paisaia. Horregatik, ezagutzera etortzea, bereizten ikastea eta zer kontatu ahal diguten aurkitzea nahi dugu.

Hizkuntza: Euskara.

Elkargunea: Pilotalekuaren atzean.

Eguna eta ordua: Urriaren ostiral eta larunbatetan, 19:00etatik 21:00etara, eta urriaren igandeetan, 12:00etatik 14:00etara.

Antolatzailea: Aulestiko Udala eta Lea Ibarra Udal Mankomunazgoa.

Informazioa eta erreserbak: 946 844 423.



OndareaBizkaia2017

LEA IBILBIDEA